

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Taldea: Kroketak

Idea: Gure taldeak euskal tradizioa sustatzeko baserri bat ipintzea erabaki du aterpetxe modura. Egonaldiaren truke, ohi dena baino diru kopuru txikiagoa ordainduko dute. Izan ere, bezeroek baserriko lanak egin beharko dituzte: baratza landu, uzta bildu, abereak elikatu...

Gure proiektuak funtziona dezan, behar ditugun elementu garrantzitsuenak honakoak dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantzia baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, baserriko lanabesak ezinbestekoak izango dira. Bai barutzerako behar direnak (aitzurra, igitaia...) eta baita abereen zaintzarako beharrezkoak direnak. Abereei dagokionez, ikuilua eraberritzea beharrezkoa da eta oilotegi bat eraikitzeke asmoa dugu. Horrez gain, hesolak eta zenbait makina beharko ditugu traktorea kasu. Baserria ere berritu behar dugu eta horretarako etxe-tresnak eta altzari berriak beharko ditugu.

Beste alde batetik, baliabide intelektual eta giza baliabideetan taldekideon abileziez baliatuko gara: Ohianeren azkartasuna, Nahiaren jakinduria, Marenen harremantzeko abilezia, Amaiaren animaliekiko harremana eta Uxueren antolakuntzarako erraztasuna.

Bukatzeko, finantzia baliabideetan maileguak erabiliko ditugu.